

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko urriak 16 • 1159. zenbakia

HAMAR URTE HISTORIAREN LIBURUAN



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurkitzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Kontabilitateak
- Laborala
- Aseguruak

C/ Tolbe Etxetania, 3-2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 54
Email: keingroup@keingroup.com



Mekola
S.COOP.

EIBAR

**LASTER
ERAIKIKO DIRA**

**AUKERA
EZIN
HOBEA**



**KOKALEKU
EZIN HOBEAN,
EIBARKO BISTA
ONENEKIN**

**Bat, bi eta hiru
logelako etxebizitzak
kooperatiban.**

KUDEAKETA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

FINANTZAKETA:



Larragest
AGENCIA INMOBILIARIA

bankoà CAE
Groupe
Crédit Agricole

943 20 00 12 / 660 976 156

www.mekola.eus



Oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

"Badira txakurrekin euskaraz egiten dutenak; hortik, euskara txakur hizkuntza, hizkuntza txakurra. Badira haurrekin euskaraz egiten dutenak, haur erdaldunei euskaraz egiteraino, di-da batean ikasiko dutelakoan. Azkenaldian beste joera bat sumatzen ari naiz: kaleko saltzaileekin euskaraz hitz egitearena. Azal beltzean nabarmentzen diren begiak gerturutzen direnean, ordura arte barra-barra gaztelera bizioan ari ziren kuadrillak euskaraz hasten dira. Saltzailea urrutiratzean, berriz, trago eta trago arteko aparteko hausnarketak: 'Ze ondo egiten duten hauek euskaraz, beste batzuk bizitza guztian hemen eta hitzik ez dutenean egiten euskaraz'. Ez du asko irauten txoro-haizeak. Hurrengo tragoarako berreskuratzen du kuadrillak bere betiko kale-zurruteko hizkuntza: 'Mañana viene lluvia' "

AMAGOIA MUJIKA, zutabegilea

"Kanpoan bizi garenok, pandemiarekin, gero eta aukera gutxiago daukagu etxera bueltatzeko. Baina, horko prentsa irakurtzeaz gain, itzultzen naizen bakoitzean umeetan identifikatu nuen kontrastearekin egiten dut topo: lur-eremu atomizatuta izateaz aparte, gure hizkuntza gutxiengoa da. Gaur egungo egoera, dena dela, bakoitzak erabakitako kontua da; tiranorik izatekotan, gu gure gara. Askok kostatzen zait ulertzea guk, adinean aurrera bagoaz ere, alemana ikasteko gai bagara, euskara digeritzeko hain zaila izatea gaztetatik gure lurra euren egin duten batzuentzat. Errefusa ideologikoa izango da tartean? Hori bururatu zitzaidan aurrekoan euskal gobernuaren ordezkari bati entzun nionean euskerazko komunikabideetan gehiegizko ideologizazioa zegoela. Arrazoiak izan dezake, baina euskeraren mundua beti egon da ideologizatu; bestela, nondik aterako zukeen bizirik irauteko erregaia? Nik kanpotik arnas falta hori nabaritzen dut. Baina erraza da laguntza eskatzea besterik ez dena protestarekin nahastea".

ENRIKE ZUAZUA, matematikaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NAHIBARIK.- Asmorik gabe, nahi gabe. "Ez da izan falta, belarriondokua nahi barik emon detsa".
NAHIEZTA / NAHI EZTALA.- Nahi barik. "Egin neban okerra nahi-ezta izan zan eta partatu zetsen". "Nahi- eztala jausi zan etxeruzkuan".



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Malen Jainaga eta
Malen Illarramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Juan Andres Argoitia eta
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.868 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





1



2

Orain dela urtebete horrelakoak ginen

10 urteko ibilbide "oparoa" ospatu zuen gure herriko El Corte Inglés dendak. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako graduazio ekitaldia egin zen Hezkuntza Esparruan. Bittor Sarasketa kaleko 1 zenbakia eraisten hasi ziren. Kataluniako buruzagiei ezarritako zigorrak salatzeako mobilizazioak egin ziren gurean. "Soka, euskal dantzaren urratsetan" erakusketa zabaldu zuten Ubitxako Biharrion Dantzan-en. Edinburgheko unibertsitatean ...eta kitto! astekariari buruz jardun zuten. Jardunaldi Mikologikoen 21. edizioa egin zen Deporren eskutik. Gimnasia Erritmikako San Andres txapelketa ere 21. ediziora heldu zen kiroldegian. Kontsumo Arduratsuaren Azoka egin zuten Egoai-ziak eta Aldatzen-ek. Debabarreneko Odol-Emailen batzarra eta bazkaria egin ziren, intsignien banaketarekin batera.

1- Klub Deportiboak antolatutako Jardunaldi Mikologikoak. 2- Kataluniako buruzagien aurkako epaia salatzeako kontzentrazioa. 3- Iperuako gimnastak nagusitu ziren San Andres Torneoan. 4- Eskualdeko odol-emaileen urteroko bilkura egin zuten gurean. 5- El Corte Inglés-en lehenengo hamarkada ospatu zuten. 6- Soka-dantzaren inguruko erakusketa egin zuten Biharrion-eko lokaletan.



3



4



5



6



Eibarko Txolarteak begirale boluntarioak behar ditu

>>> Atzegi adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak garatzen duen Txolarte programarako boluntarioak behar dituzte. Txolarteak adimen urritasuna duten 16 urtetik gorako pertsonentzako aisialdi eta denbora libreko klubak dira eta bertan, asteburuetan, ekintza desberdinak egiten dituzte. Eibarko Txolarteak lokala dauka Txomon eta han egoten dira, irakurtzen, eskulanak egiten... Jarduera horiek begirale boluntarioen laguntzarekin egiten dira, asteburuetan (normalean zapatu arratsaldetan) eta bi talde daude: gazteena (Eibarko Gazteak) eta helduena (Eibarko Helduak). Begirale modura jarduteko prest egonez gero, edo informazio gehiago jasotzeko, 943 42 39 42 telefono zenbakira deitu daiteke (Olatz edo Vanesarengatik galdetu).

Eibarko Baso Biziak taldeak Untzagan prestatu duen erakusketa ikustera joateko azken eguna da gaur

>>> Aurreko barixakuan zabaldu zuten erakusketa Eibarko Baso Biziak taldekoek, Untzagan jubilatuen etxean. Baso kudeaketa jasangarriagoa aldarrikatzen duten herritarrek osatutako taldeak hainbat argazki ipini ditu ikusgai, formato ezberdinetan, "gure mendietan gertatzen ari den sarraskia" erakusteko. Gaur arte egongo da ikustera joateko aukera. Antolatzaileen berbetan, "erakusketa didaktiko bat egin nahi dugu, talak eta matarrasak non egin diren zehaztuz eta eukaliptoak non landatu den azalduz".

Bestalde, Eibarko Udalak urriaren egingo duen plenoan aurkezteko mozioa prestatu dute, lau eskaerekin: eukaliptoak eta lurrarentzat eta bioaniztasunarentzat kaltegarriak diren gainontzeko espezie guztien landaketak saihesteko, bere esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzea; Eusko Jaurlaritzari Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa eratzeko eta Eucalyptus



barietate desberdinak katalogo horretan jasotzeko administrazio-prozedurak berehala ireki ditzala eskatzea; Foru Aldundiari baso-politikak alda ditzala eskatzea, gure lurraldeetan eukalipto gehiago landatu ez daitezen, eta gauregun dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua planifika dezaten; eta lur-jabe eta baserritarrendako laguntza eta aholkularitza sustatzea, udalaren baliabideak erabiliz, basogintza-eredu jasangarriagoa aplikatze aldera.

Oposizioak salatu du Errebalgo dokumentazioa ezkutatzen zaiela

>>> EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako ordezkariak salatu dutenez, PSE-EE alderdiak Errebalgo lanei buruzko dokumentazio garrantzitsua ezkutatzen die: "Legeak aurreikusten duen epe barruan erantzun barietateko 28 eskaera pilatu zaizkie sozialistei. Zer ezkutatu nahi dute?".

Oposizioko ordezkarien berbetan, "eskatutako dokumentazioa gure esku ipintzeko bost eguneko epea dago, eta kasu batzuetan bi hilabete eta erdi baino gehiago igaro da". Eskatu dituzten dokumentuen artean, Obra Plana, Azpikontratazio



Liburua, Azpikontrataturako ordaindutako faktura eta ordainagiriak, Segurtasun eta Osasun Plana, Obren bileterako aktak eta Lan arloko hitzarmenari lotutakoak daude, besteak beste.

Lanera Bideratuz programa abiarazi du Armeriako Elkarteak

>>> Armeria Eskolako Elkarteak (AEE), Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizartze Gaie-tako sailaren laguntzarekin batera, langabetuei zuzendutako gizarteratze eta laneratze programa jarri du abian, laneratzea errazteko". Programak bi hilabeteko iraupena dauka (azaroa eta Abendua) eta lau fasetan garatuko da: lan-orien-

tazioa, garapen pertsonala, enpresara hurbiltzea eta laneratzea. Parte-hartzea doan da eta izena emateko epea zabalik dago, urriaren 30era arte. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko, 943 20 32 44 telefonora deitu daiteke edo elkarte@armeriaeskola.eus helbidera idatzi (kontakutua Ainara Arrate da).



Plan Estrategikoa eta irudi berria aurkeztu ditu Mankomunitateak

>>> Debarrena Mankomunitateak epe ertain eta luzerako Plan Estrategikoa aurkeztu zuen aurreko astean, baita hemendik aurrera plan estrategikoa zehaztutako helburuak lortzeko erabiliko den irudi korporatibo berria ere. Iosu Arraiz Mankomunitateko lehendakariaren berbetan, "Plan Estrategikoa xedea da Debarreneko bizi-kalitatea hobetzen laguntzea, hondakinen eta kalegarbiketa zerbitzuak kudeatuz eta jasangarritasunaren bidean pausua emanez alor orotan".

Planak bi oinarri ditu: hondakin biltzea eta garbiketa zerbitzuak. Hondakin biltzetan alorrean, 2030. urtean %70eko birziklapen tasa lortzeko jomuga du Mankomunitateak. Eta garbiketa zerbitzuari dagokionez, zerbitzuak udalerrien behar espezifikoetara egokitzea da helburua. Ibilbide berria isladatzeko, irudi korporatiboa eguneratu du Mankomunitateak. Logotipo berriak Debarrena hitzak dituen bi konzeptuen batuketara adierazten du (Deba + Barrena).



Domekan irten zen Kordobako kartzelatik Ibon Muñoa

>>> Domeka goizean irten zen Ibon Muñoa Arizmendiarrieta Kordobako espetxetik. Eibartarra 2000ko urrian atxilotu zuten eta 20 urteko kartzela zigorra bete du hainbat espetxetan. Kartzelan egon den bitar-

tean hainbat liburu idatzi ditu eta zazpigarrena, "Gure Amalur feminista da" eskuan zuela irten zen Kordobatik. Liburua hilaren 24an aurkeztuko dute, 12:30ean, San Andres elizako klaustroan.


Hiru lagun eginbideak ireki dizkiete trenak pintatzeagatik

>>> Ertzaintzak eginbideak ireki dizkie ustez trenean pintaketak egin dituzten hiru eibartar gazteri. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailak martitzenean eman zien horren berri 23, 24 eta 28 urteko mutilei. Gazteak ustez trenean pintaketa egiten ari zirenean bizilagun batek Ertzainari abisua eman zion eta, bertaratu zirenean, polizia auto bat gelditu zuen. Barruan hiru lagunak zeuden eta, batek eskuak margotuta edukitzeaz gain, hainbat esprai ontzi aurkitu zituzten autoan.



Ahoztar Zelaietak Kultur aurkeztuko du liburu berria

>>> Datorren martitzenean, urriaren 20an, aurkeztuko du Ahoztar Zelaieta kazetari eta kriminologoak bere liburu berria, urriaren 3an argia ikusi duen "Zaldibar zona zero" izenburukoa. Ekitaldia Arrate Kultur Elkartearen izango da, 19:00etan, Zaldibar Argitu plataformak antolatuta.



"Ongi etorri euskarara" egitasmoa jarri du martxan Udalak

>>> DBHko ikasleek euskara maila hobetzeko errefortzu saioak eskaintzen ditu 'Ongi etorri euskarara' egitasmoak. Aurten bost talde osatu dituzte. Horietako bat Indianokua gaztelekuan bilduko da astelehen eta eguaztenetan modu ludikoan euskarara gerturatu eta euskara gehiago ikasteko; beste talde bat Jardinetako ikastetxean elkartuko da; eta beste hirurak Eibar BHI Isasina. Talde batzuetan Eibarren eskolarizatu berriak diren ikasleak daude, eta beste batzuetan DBH zailtasunik gabe burutzeko euskara maila hobetu behar duten ikasleak. Saioen helburua



honakoa da: jolas giroan euskara lantzea; euskal gizartearen parte direneko sentimendua lantzea; euskararen aldeko motibazioa, ezagutza eta erabilera sustatzea; eta gazte etorri berrien sozializazioan laguntzea.



Kontsumo Arduratsuaren Azoka, bihar Untzagan

>>> Bosgarren urtez jarraian, Egoaizia GKEEak Kontsumo Arduratsuaren azoka antolatu du. Bihar goizean egingo da, Untzagan, goizeko 10:00etatik aurrera, 14:30ak arte. Eki- mena Eibarko Udalak eta Kuxa Fundazioak finantziatzen duten gizarte eraldaketarako Hezkuntza Proiektuaren baitan garatuko da eta, antolatzaileen berbetan, “pandemia sasoiaren kontsumo arduratsua praktikatu goiburuari jarraituz, gizarte justizian eta ingurumenaren kontserbazioan oinarritutako beste kontsumo modu bat ezagutzera eman nahi dugu”. COVID-19 dela-eta, azokan osasun eta segurtasun neurriak zainduko dituztela azpimarratu dute.

Beste urte batzuetan bezala, hainbat talde eta elkartek

hartuko dute parte azokan: Fiare banku etikoa, Aza ta Porrúa kontsumitzaile elkarte, bidezko merkataritza produktuak eskainiko dituen Kiden- da, Ardilanak-en artisautza naturala, artisau eran egiten den Baobeer garagardoa, Solsola baserriko ogia eta gazta, Mañeko-Azpiren gozogintza, EkoModoren artisautza produktu ekologikoak eta Eibarko Ingeniaritza Eskolako Energia Berriztagarrien graduak erakutsiko dituztenak bilduko dituzte biharko ekitaldian, besteak beste. Aurten, gainera, partaide berriak egongo dira: Tologorriren marmelada eta zuku ekologikoak, Tierra, tijera y papel-en paper birziklatua eta artisau erako enkuadernatzeak, Kaitxoren txokolate eta kafeak,

bizikletak konpontzeko tailerra Eibarko Klub Deportiboko txirrindularien eskutik, eta Berexi eta Guby dendako diseinu eta marka ekologikoak.

Azoka girotzeko, bestalde, elkarrizketak egingo dizkiete parte-hartzaileei eta hurrentzat ipuin-kontalari saioak eskainiko ditu Basotik Basorak, EnEKO baserriaren istorioekin (lau saio egingo ditu, 12:00etatik 13:30era eta, aforoa zaintzeko, aurretik eman beharko da izena egoaizia@egoaizia.org helbidean). Bestalde, Egoaiziak antolatu duen III. Argazki Lehiaketako lanen erakusketa eta pobrezia- kontrako beste bat ikusi ahal izango dira. Eta, nahi izanez gero, erabiltzen ez dituzten telefono mugikorak eraman ditzakezue. Argazki lehiaketako sari-banaketa 14:00etan izango da eta 14:30ean, berri, bidezko merkataritzako produktuen otarra zozketatuko dute.

AUTUAN

BILERA IPURUAKO MERKATUAN

Udal jabetzakoa den Ipuruako Merkatu zahar-eko eraikinaren erabilera definitzeko eta adosteko parte-harte prozesuari hil honetan helduko zaio berri, urriaren 21ean, 18:00etatik 20:30era, eraikinean bertan egingo den bilerarekin. Otsailean eta martxoan egin ziren batzarren ostean, urriko hau izango da prozesu parte-hartzailearen barruan egingo den azkena. Saioan, merkatu zaharraren eraikina dinamizatzeko antolaketa, eta jardueren eta proiektuen helburuak aztertuko dira, besteak beste. Hala, zehaztu egingo dira zer toki egokitu behar diren azpiegituran, eta, horren arabera, proiektu bat egingo da higiezina berronertzeko. Gaur egungo egoera dela-eta, hilaren 21eko bilera joan nahi dutenek alde aurretik eman beharko dute izena, saioaren aforoa guztira 20 lagunekoa izango baita. Horregatik, parte hartzeko interesa dutenek mezu elektronikoa bidali beharko dute datu pertsonalekin alkatetza@eibar.eus helbidera, urriaren 19ko 15:00ak baino lehen.



TIMOTEA ZUBIZARRETA BARRENA

2020ko urriaren 7an hil zen

FAMILIAREN IZENEAN, **eskerrik beroena** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





Virgiliok bizitzeko toki bikaina aurkitu du Eibarren. EKHI BELAR

Lehen mailako latsaria

Eibar FT-ren jokalariek lehen mailako latsaria edo erropagarbitzailea aurkitu zuten orain dela urte batzuk. Hainbat urtetan lokatzez zikindutako erropak garbitzen ibiltzetik, izarren hautsez zikindutakoak garbitzen ditu orain Virgilio Villafañak. Eibar FT-ren garbitzaileak herriko foballaren istorio distiratsuenak barru-barrutik bizi izan ditu, bere La Vega maitea laga zuenean espero zuen bizitza atsegina biziz.

Irla ezagutzeko gogoz

La Vega Dominikar Errepublikako erdigunean dagoen hiria da. "Hiri jatorra eta xumea da",

dio Virgiliok bere jaioterriaz. "Turismoaz gain, nekazaritza da hango jarduera ekonomiko garrantzitsua. Arroza, platanoa, juka... ekoizten dira", dioenez. Hurbil ditu mundu guztian famatuak diren hondartzazuriak eta Karibeko uren urdin turkesa. Virgiliok bere jaioterriko edertasuna miresten du, baina bertako biztanleen bizitza ez da turistek izaten dutena bezalakoa. "Dominikarrok ez diogu han dugunari zukua ateratzen", bere ustez. Hala ere, toki eder asko ezagutzen ditu eta ezagutzeko falta zaizkion beste toki batzuk ezagutzeko gogoz dago.

“**Cuando yo digo que la burra es prieta es porque tengo los pelos en la mano**”
“Zerbait esaten dizudanean, oso ziur nagoelako da”

Venezuelan gidari

Virgilio 20 urtez bizi izan zen La Vegan. "Aitxitxa eta amamarekin hazi nintzen eta haurtzaro pribilegiatua izan nuen", gogoratzen du. "Lagunekin beisbolearen egiten nuen etengabe. Gero, pena eman dit ikasketa gehiago ez egiteak, beste pertsona bat izango nintzatekeelako. Inoiz ez nuen pentsatu izan ikasketak hain garrantzitsuak zirenik. Baina tira, ez dago atzera bueltarik", dio pentsakor. Handik Venezuelara jo zuen aukera gehiago eta bizitza hobeto baten bila eta emakume baten auto-gidari bezala ibili zen 23 urtez. "Gaur egun Venezuelako egoera nahiko nahasia da, baina sasoi hartan oso aukera ona zen Venezuelara joatea aukera berrien bila", azaldu digunez.

Toki bikainean

Virgiliok 14 urte daramatza Eibarren bizitzen. Venezuelara joan zirenean gertatu zenaren kontrara, oraingoan alaba izan zen bidaiatzen lehena, emaztea gero eta bera azkenik. Kontinentea aldatu behar izan zuen, baina pozik dago hartutako erabakiarekin. "Euskal Herria bizitzeko toki bikaina da", bere ustez. "Alaba Eibarren bizi izan zen lehenik pare bat hilabetez, baina gero Debara joan zen", bere berbetan, eta Virgilio Eibarren finkatu zen. "Lehen momentutik bikain hartu naute", dio bihotzez, "jendeak asko maite gaitu". Hemen daude bere lehengusuak ere eta alabak Deban sortu duen familiarekin pozik dago. Gainera, Euskal Herriko ohiturak bere

egin ditu. "Txikiteoa ezin da falta, noski", dio barrez.

Bihotz gorriurdina

Bere bihotzeko beisbol taldea Cibaoko Aguilas da eta foballearen gorriurdinak dira bere koloreak. "Orain foballa beisbola baino gehiago jarraitzen dut", aitortzen du. Eibar FT-rekiko maitasuna aspalditik dator, taldearekin oso lotura estua duelako. "Agustin lehengusua taldean lan egiten hasi zen erropa garbitzen eta, lan karga handia zuenez, Jaime Barriusori esan zion ea ni ere lanean hasi nintekeen. Baietz erantzun zion eta horrela hasi nintzen", dio Virgiliok. "Barriusok esan zidan lana ondo egiten ikasteko, bertan geratzeko aukerak nituelako, eta horrela egin nuen", gogoratzen du. Orduetik, Virgilio taldearen parte izan da eta Bigarren B Mailako lokatzean ibili ondoren, orain emozio handiz bizi du Lehen Mailako ametsa. "Ondo eginganda lanaren fruitua da eta taldea merezi duen tokian dago", bere iritziz.

Jaioterriaren mira

Dominikar Errepublikara hainbat aldiz itzuli da Virgilio eta, ahal dela, abenduan berriz joango da. "Hemen negua denean joatea gustatzen zait, han ere gauak freskoagoak direlako eta lo egiteko atsegina delako", kontatu digu. Familia hemen du, baita hemen eraiki duen bizitza ere, baina han ditu txikitako lagunak eta gustatzen zaio eurekin elkartzeari. "Urrun bizi zarenean zure jaioterriaren mira gehiago duzu", dio.

ERREKATXU BERRI BIZIGUNEAN 150 ETXEBIZITZA eraikitzeke lanak berehala hasiko ditu Loiola promotorak. Promozio berriko etxeek 1, 2 eta 3 logela izango dituzte, baita garajeak eta trastelekuak ere. Bertakoentzat txokoa eta gimnasioa ere izango ditu, dendetarako lokalak eta supermerkatuarekin batera. Nerea Azpiazu arduradun komertzialak azaldu digunez, promozioak oso harrera ona ari du izaten.



NEREA AZPIAZU Arduradun komertziala

“Berehala hasiko dira Errekatxuko etxeak eraikitzeke lanak”

Noiz hasiko zarete Errekatxuko etxeak eraikitzen? Berehala hasiko dira lanak. COVID-19ren eraginez, hirigintzako tramitazioa pixka bat atzeratu da, baina tramite horiek ia amaituta daude eta, beraz, laster, egun gutxi barru hasiko gara lanean.

Orain arte, nolako harrera izan du promozioak? Harrera benetan oso ona izan du hasieratik. Salmentak oso ondo, erritmo onean doaz, eta jende asko etorri zaigu galdezka. Etxe asko saldu ditugu, baina, hala ere, oraindik badago erosteko aukera. Eskaintza interesgarriak dauzkagu.

Nolakoa izango da Errekatxu berria? Etxeak logela batekoak, bikoak eta hirukoak izango dira, terraza eta argi askorekin. Tokia ere oso ona da, herriaren erdi-erdian dagoelako. Etxe berriekin batera, supermerkatua egongo da bertan, dendak zabaltzeko lokal asko egingo dira... Inguru guztia errentatzen hobekuntza nabarmenak ekarriko ditu promozio berriak: bizitasun eta zerbitzu gehiago, merkataritzarako aukera berriak...

Etxeekin batera, trastelekuak eta garajeak ere egingo dira, ezta? Hala da, bai. Garajeek ere oso harrera ona izan dute. Bertan etxea erosi barik ere, jende askok erosi du garajea. Izan ere, garajeetara hiru sarbide egongo dira, Txal-txa Zelatik, Bista Eder kaletik eta Bidebarrietatik zuzen-zuzenean sartzeko. Egia esan, garajeen kokapena paregabea da eta, hiru sarrera-irteera horiei esker, oso erraz eta azkar joan daiteke edozein tokitara. Horrek Errekatxu inguruan bizi den jende askorentzat garajeak oso erakargarriak izatea eragin du.



Loiola
Espacios para vivir


ALTUNA Y URÍA S.A.

IbaiOndo
inmobiliaria 

INFORMAZIO ETA SALMENTAK:
Ibai-Ondo inmobiliaria (Goizane Goikoetxea)
943 201 213 | 633 483 956
Bidebarrieta 24, behea - 20600 EIBAR -

Pandemiak bertan behera laga ditu AFESDek urteroko egiten dituen ekintza gehienak: Zumba maratokia, Tatuaje Solidarioen Jaialdia, Sanandresetako txosna... Hala ere, beti bezala, aurrera egin dute ausart. Ekainean maskara solidarioak egiten eta saltzen hasi ziren sare sozialen bitartez eta egitasmoak demaseko arrakasta izan du. “Jendeari asko gustatu zaizkio eta Eibartik kanpo ere eskaerak jaso ditugu”, kontatu digu Esti Blanco AFESDeko kideak. Salamancako, Valentziako, Asturiaseko eta Gasteizeko hainbat lagunek, adibidez, maskara solidarioak dituzte dagoeneko.

Maskarak enkarguz egiten dituzte, hainbat tela dituzte edozeinen gustuetara moldatzeko, eta tamaina (helduentzat, umeentzat...) eta forma ezberdinetakoak daude. Gainera, sargazko filtro homologatua dute eta 26 aldiz garbitu daitezke; eta, bestela, sargazko filtro solteak sartu daitezke barruan.

Eskaerak AFESDen Facebook eta Instagram orrialdeen edo WhatsApp (659124703) bitartez egin daitezke, eta maskarak zuzenean entregatzen dituzte. Hala ere, herritik kanpo bidalketak egiteko aukera ere badago. Maskaren prezioa 5 eurokoa da, 7 euro Eibar FT-ren edo beste talderen baten armarrria jarri nahi izanez gero.

Asteburu honetan, orain arte modu birtualean egindakoa aurrez aurre egiteko asmoz, salmenta-postua jarriko dute Untzagan (bihar 11:00etatik 19:00etara eta etzi 11:00etatik 14:30era). Baina ez maskarak bakarrik. “Moldaerazak gara eta maskarak egiteko erabiltzen ditugun oihalekin maskarak gordetzeko poltsatxoak, merienda gordetzeko poltsak eta motxilak egin ditugu”, dio Estik. Maskarentzako poltsak maskaren diseinuekin konbinatu daitezke eta 3,5 euro balio dute; eta motxilen prezioa 18 eurokoa da eta norberak nahi duen telarekin egin daitezke.

Maskarak baino askoz ere gehiago

Diagnostikatu Gabeko Gaixotasunengatik Kaltetutako Elkartek (AFESD) salmenta-postua jarriko du asteburuan Untzagan. Azken hilabeteotan sare sozialetan egin bezala, maskara solidarioak jarriko dituzte salgai, baina ez hori bakarrik, poltsatxoak eta motxilak ere salduko dituzte. Gainera, arazo horri ikusgarritasuna emateko balio izango duen ekintza izango da, elkartasuna berebizikoa delako.



Eibartarren elkartasuna

Nahia, Ibai eta euren familiak osatzen dute AFESD. Nahia Soralezkoa da eta diagnostikatu gabeko gaixotasuna dauka. Ibai, bestalde, eibartarra da eta, hainbat urtez diagnostiko barik egon ondoren, orain badaki zer gertatzen zaien. “Allan-Herndon-Dudley ize-neko sindromea du”, kontatu digu Esti bere amak.

Nahiak eta Ibaik urtean zehar hainbat terapia eta tratamendu jaso behar dituzte eta ez dira batere merkeak. Horregatik egiten ditu AFESDek hainbat ekintza urtean zehar eta horregatik eskertzen dute eibartarrek ematen dieten babesa, baita pandemia betean ere. “Eibarko Maskarilak elkarteak maskarak banatu zituen doan eta jendeak diru-ekarpenak

egin zituen. Eurek, ordea, herriko hainbat elkarteren artean banatu zuten diru hori”, dio Estik esker onez. “Aste honetan, bestalde, aspaldiko lagun batek lehen sorospenen ikastaro bat egin zuen online eta irabaziak AFESDentzat izan dira”.

Estiren ama jostuna da eta Eibarko Maskarilak egitasmoan hartu zuen parte. Hortik abiatu zen maskara solidarioen egitasmoa. “Eibartar guztientzat maskarak egiten amaitu zuenean niretzat josten hasi zen etxean zituen oihalekin”, dio Estik. “Ibairen irakasle bati maskarak gustatu zitzaizkion eta AFESDen bitartez saltzeko ideia eman zidan, eta horrela hasi ginen”.

Terapia garestiak

Pandemiak zuzen eragin dio AFESDi eta, ondorioz, Nahia eta Ibairi. Zorionez, terapiekin jarraitu ahal izan dute. “Urteak daramatzagu elkartearekin lanean eta aurten gastuei aurre egin ahal izan diegu”, Estiren berbetan, baina, beste laguntzarik jaso ezearan AFESDen bitartez lortutakoa da bi umei laguntzen dien ia ekarpen bakarra. “Umeak ezin ditugu terapia egin barik laga”, dio Ibairen amak, “eta terapia bakoitzak dirutza balio du”.

Fisioterapia saioak, logope-da, Terasuit saioak, igerilekua, musikoterapia, hipoterapia... luzea da Nahiak eta Ibaik jaso behar dituzten terapien zerrenda eta, Estik dioen bezala, “edo oso ondo zaude ekonomikoki edo oso zaila da gastu horiei aurre egitea”. Eskola ere ordaindu behar izaten dute. “Seme txikiak Argatxan ikasten du eta ez dugu ezer ordaindu behar, baina Ibai Aspacera joan behar da eta 160 euro ordaindu behar dugu hilero”, Estik dioenez. Batuketa eginez gero kopuru altua irteten da guztira eta erakundeen laguntza, ordea, urria da.

Gastuei buruz berbetan, orain ortopedia da arazo nagusietako bat. “Ibai ezin da oinez ibili, baina bere hankek forma egokia edukitzeko zapatila be-



AFESD elkarteari laguntzeko maskarak, poltsatxoak eta motxilak salduko dituzte asteburuan Untzagan.

reziak erosi behar ditugu eta 180 euro balio dute”, dio Estik. “Bere jarlekua ere aldatu egin behar da, hazi egin delako, eta gerora begira oso garrantzitsua da, beste edozein gaitz saihesteko”. Eta beste datu bat aipatzearren, Ibai auto barruan modu egokian joan ahal izateko behar duen jarlekuak 1.400 euro balio du.

Ibai pandemia sasoiari

Ibaik duen gaixotasunak ez du atsedunik hartzen, berdin zaio mundua gelditu izana. Horregatik, eibartar gazteak etengabe egin behar du borroka, ezin du bere ohiko jarduerara gelditu. Beraz, konfinamendu sasoiari ez da erraza izan beretzat. “Gogorra izan da Ibai etxean edukitzea hainbeste denbo-

ran terapia egin ahal izan barik. Hala nola moldatu gara zerbait egiten saiatzeko, baina Ibai oporretan balego bezala zegoen”, dio Estik.

Martxotik ekainera Aspace-ra joan barik egon zen, baina konfinamenduan zehar Aspacek eskainitako ekintza proposamenak esker onez jaso zituzten Ibairen gurasoek.

“Ume hauentzat berebizikoa da errutinak edukitzea”, bere berbetan. Eta bestetik, terapiak ekainaren erdialdean berrekin zituzten. “Segurtasun neurri zorrotzekin, ume hauek arriskua duten pertsonak direlako”, dio.

Asteburuan Untzagan salduko diren maskarak ez dira maskara hutsak.

Gabonetako OTARRA

1.500 €ko
balioa duen Otarra
1.000€ produktuetan eta 500€ko erabilerarekin

Prezioa: 1€
Zbk: Irabazteko 2020ko abenduaren 15ean egongo da

eta
Euskara Elkartea

eta
kitto!
Euskara Elkartea

El Corte Inglés

— salmenta lekuak —

- ARRIOLA PRENTSA
- ECHETTO PRENTSA
- ARRIAUNDI OKINDEGIA
- OTEGI HARATEGIA
- MARIA OSPITXAL
- AMETSA TABERNA
- GURIDI TABERNA
- IZADI LORADENDA

FUNEUSKADI

Grupo Asistia

FUNERARIA MUGICA

Funeruskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27

Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Ezetz asmatu



zenbat pizatzen duen!



Bi tarta hauek batera
zenbat pizatzen duten
asmatzen baduzu,
elixera eramango
dituzu eta
xanpaina
oparill!



parte-hartzea



Urriaren 24an (ZAPATUA)
12:00etatik 14:30era
Untzagan



Euskara Elkartea



LAGUNTZAILEAK



<<< RASTREADOREAK • Debabarrena ESI-ko lantaldea >>>

“Gure zeregin nagusia COVID-19aren transmisio-katea gelditzea da”

Pandemia sasoi honetan, “aztarnari” edo “rastreadore” ia nahitaez gure eguneroko hiztegian sartuta dauden berba berriak dira. Koronabirus-kutsatu berrien arrastoa jarraitzen dute aztarnariak. Euren funtsezko zeregina kutsatzekatea gelditzea da. Osakidetza arduratzen da lan hori egiteaz, eta gure eskualdean zeregin horretan buru-belarri diharduen lantaldearekin egoteko aukera izan dugu. Eibarko Ospitalean egoten dira eta euretako hiru (Laura Arrieta, Iranzu Lopez de Zubiria eta Laura Martin) eibartarrak dira.

Debabarreneko eskualde osoari zerbitzua ematen dion Debabarreneko ESIko profesionalak zarete. Zein da zuen lan-eremua?

Guk familian eta gizartean atzemandako COVID-19 kasuak jaso eta kudeatzen ditugu. Eurekin harremanetan jartzen gara eta miaketa egiten dugu, hau da, gaixotasunaren eraginpean egon diren pertsonak identifikatu, informatu eta kudeatzen ditugu, transmisioa prebenitu eta geldiarazteko. Lan-arloan atzemandako kasuak prebentzio-zerbitzuek, Osalanek... aztertzen dituzte. Gainera, egunero gaude harremanetan Osasun Publikoko, Epidemiologiako eta Osakidetza koordinazioko teknikariek.

Nola dago antolatuta lantaldea? Nondik egiten duzue lan?

Hasieran, erizain kudeatzailer bat genuen zaintza-sarean, baina, intzidentziek gora egin ahala, profesional berriak jarri dira sarean. Gaur egun, taldeak 9 profesional ditu. Gizarte-langile bat, 4 erizain, 3 fisioterapeuta eta administrari bat. Eibarko Ospitalean lan egiten dugu, eta astelehenetik domekara arteko kasuak aztertzen ditugu, 8:00etatik 20:00etara. Gainera, sarean lan egiten dugu, hau da, gure eskualdeko kasuak amaitzen



Eibarko Ospitalean lan egiten dute, astelehenetik domekara. Goitik hasita, ezkerretik eskumara, Maria, Maitane, Itziar, Andrea, Laura, Janire, Iratxe eta Iranzu.

baditugu, beste erakunde bati laguntzen hasiko gara, eta alde-rantziz. Lankidetzeta-lana egiten da, sarean, erakunde batzuk beste batzuekin elkarri lagunduz, eta erakunde bakoitzak bere sare txikia du, sare orokor baten barruan lan egiten duena.

Zein da rastreadore-lantaldearen helburu nagusia eta zeintzuk dira zeuen eginkizunak?

Koronabirusean positibo eman dutenen kontaktu estuak ahalik eta azkarren detektatzea eta transmisio-katea mozteko isolatzea da helburu nagusia. Horrez gain, PCR frogak kudeatu eta etxeko koarentenako gomendioen berri ematen zaie. Jatorrirra iristen saiatzen gara, nahiz eta batzuetan oso zaila izan; ez da beti lortzen.

Ikusi da oso garrantzitsua dela positiboak ahalik eta lehen detektatzea eta PCRak berehala egitea. Nola lortzen da hori? Zein tresna edo baliabide daukazue eskura horretarako?

Lehenbailehen detektatzea oso garrantzitsua da transmisio-katea mozteko; normalean, lehenengo kontaktua telefono bidezkoa izaten da, eta, ondoren, askotan posta elektronikoa erabiltzen dugu. Gainera, telefono bidezko aldi bereko itzultzaile bat dugu, gure hizkuntza ezagutzen ez duten pazienteen kasuan. PCRak biltzeaz arduratzen den profesional-talde bat dugu, eta eskariaren arabera aldatzen da PCR kopurua.

Zein irizpide erabiltzen dituzue pertsona bat kontaktu estua dela erabakitzeko?

Kontaktu estua da positibo eman duenaren tokian bertan egon den pertsona oro, 15 minutu baino gehiagoz bi metro baino gutxiagora egon dena. Gainera, kontaktu estua dira auto berean bidaiatu dutenak. Beste irizpide batzuk ere erabiltzen dira, hala nola, espazio irekiak eta itxiak, aireztapeneko espazioak, espazioaren azalera eta egiten den jardueraren mota.



Argazkian lantaldeko hiru eibartarrak. Ezkerretik hasita, Laura Martin koordinatzailea, Iranzu Lopez de Zubiria eta Laura Arrieta.

Kontaktu estuek, positiboak zein negatiboak, etxean isolatuta egon behar dute. Zenbat egun? Eta zenbat PCR egiten zaizkie?

Kasu positiboen isolamendua 10 egunekoa da emaitza jasotzen denetik, baldin eta azken hiru egunak asintomatikoak izan badira. PCR negatiboak duten gainerako kontaktuak

10 egunetz isolatuko dira kasuarekin azken kontaktua izan eta gero, eta PCR errepikatu egingo da. Bigarren PCR hori negatiboa bada eta pertsonak sintomarik ez badu, koarentena amaitzen da.

Nolako jarraibideak ematen zaizkie osasun aldetik?

Komunera joateko bakarrik

atera daitezke gelatik. Bi bainugela badaude, positiboak bat erabiliko du, eta familiarako gainerakoek bestea. Bainu bakarra badago, lixibarekin desinfektatu behar da, erabili ondoren. Erropak berezita eta ur beroarekin (60/65 gradu) garbitu behar dira. Positiboari janaria gelara eraman behar zaio bandeja batean, atea ukitu eta berak jaso. Platerak eta mahai-tresnak, ahal bada, beti berberak izan behar dute isolamenduak irauten duen bitartean. Ontzi-garbigailuan garbitu behar dira edo, bestela, azkenak, eta ur beroarekin. Beti atera behar dute gelatik maskararekin. Ez da bisitarik jaso behar etxean.

Positiboek frogak bakarrik egiten zaie eta negatiboek bi. Azaldu hori pixka bat...

PCRa diagnostiko-proba bat da; positiboak bada, ez da beharrezkoa errepikatzea. Hasieran negatiboak ematen duten kon-

"PCRak biltzeaz arduratzen den profesional-taldea dugu, eta eskariaren arabera aldatzen da PCR kopurua"

"PCRa diagnostiko-proba bat da; positiboak bada, ez da beharrezkoa errepikatzea"

taktuei froga errepikatu egin behar diegu, koarentenan posibilitatu daitezkeelako.

Positiboen kontaktuei deitzen diezuenean nola erreazionatzen dute? Etxean gelditzen dira denak? Erraza da komunikazioa?

Era guztietako erreazioak daude. Alde batetik, kolaboratzeko eta bakartze-lana behar bezala egiteko prest daudenak daude, eta, bestetik, era guztietako eragozpenak jartzen dituztenak. Azken horiekin enpatizatzea oso zaila da eta batzuetan ez dugu lortzen. Oso esker onekoa da isolamendu-amaieraren deia.

Positibo asintomatikoak detektatzea ezinbestekoa dela diote adituek. Nola egin daiteke hori, agian Azkoitian eta Gasteizen egun hauetan egiten ari diren test masiboekin?

Ez dugu behar adina informazio galdera horri erantzuteko; agian, Epidemiologiak hobeto erantzun diezaioke. Azkoitiko eta Sansomendiko baheketak amaitzen direnean ateratako ondorioak ikusiko ditugu.

Nola murriztu daiteke kutsatzeko arriskua? Jendeak bar-



"Kontaktu estuak ahalik eta azkarren detektatzea eta transmisio-katea mozteko isolatzea da helburu nagusia"

"Harreman sozialak murriztea ezinbestekoa da. Jende askok, zoritxarrez, ez ditu ahokuak jarraitzen"

neratuta dauka harreman sozialak aldatu behar dituela?

Ezinbestekoa da kontaktu sozialen kopurua murriztea eta kutsatzeko arrisku handia duten jarduerak gutxitzea. Horrez gain, maskara behar bezala erabiltzea eta eskuak maiz garbitzea oso garrantzitsua da. Egunerokotasunak erakusten digu jendea oso sentibera dela gaiarekin, eta harremanak murriztu dituela eta neurriak muturreraino eraman dituela. Baina beste jende askok, zoritxarrez, ez ditu ahokuak jarraitzen, eta ia egunero harreman asko izaten dituzten kasuekin aurkitzen gara.

Nola funtzionatzen ari da "Radar Covid" aplikazioa? Tresna erabilgarria izan daiteke?

"Radar Covid" mugikorerrako aplikazioa guztion eskura dagoen tresna da, kasu batekin harreman estua izan duzun jakiteko. Bluetooth geolokalizazioarekin funtzionatzen du. Aste gutxi daramatzagu aplikazioarekin Euskadin. Izan daitezkeen kontaktu horiek guztiak miatzeko bi talde daude. Kontakto bakoitzarekin azterketa bat egiten da, hala dela egiaztatzeko, betiere kasuaren konfidentzialtasuna bermatuz.



**2021eko gida
prestatzen dihardugu**

**#Eibarren
badakagu**

**publizitatea@etakitto.eus
etakitto.eus/mediateka/gida-komertziala**



Perretxikoen artean gozoenak

Perretxiko onenak berarentzat: kuletoa, urritxa eta urdina. Zizak ere bai, baina berak besteak nahiago. Zizak nola ipintzen diren ere aldea dago. Hartu berritan jan behar dira, bestela zaporea galtzen dute.



Lehen beste zuhaitz batzuk zeuden gure basoetan. 1950eko irudian Juan San Martin eta Jose Laskurain, Zuhaitz Eguneko beste parte-hartzaile batzuekin zuhaitzak landatzen.

GURE GIPUZKOA, JUAN SAN MARTIN BILDUMA



Angel Albizuri Ormaetxea
(1921 – 2015)

Abadeekin ikasitakoa; monagilo ere izan zen. 14 urterekin aprendiz moduan sartu zen Orbeaneko fabrian, mekaniko eta ajustadore lanak egiten. Aita Orbeako enkargatua zen, pistola kontuan. Gerra garaian Orbea lantegiak Eibarren jarraitu zuen eta, Francoren tropak sartu zirenean, obusak egiten hasi ziren bertan. Angelek betidanik izan du mendirako zaletasun handia eta oso ondo ezagutzen ditu inguruko txori eta perretxikoak. Eibarko Hiztegi Etnografikoa burutzeko ere lekuko garrantzitsua izan zen.

Angel Albizuriri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Ta, piskat, esateko benenosuak dirala, orduan zapo-perretxikuak.] Zapu-perretxikua! Lehen, esaten detsut ba, gerra aurrian, piñarixako, nahiz eta onguak jositta, iñork ez eban hartzen. Ezta pentsau bez! Pagukua, harixakuak... ta lanpernia be zera. [Ta piñarikua zapu-perretxikua.] Piñarixan sartu bez! Nahiz eta onguak... dana jositta egon. [Zapu-perretxikuak ziralako.] Bai ba. Joe! Piñarixakuak desastria! [Ezautu bez, ez? Orduan piñu gitxi-ta...] Ezautu bez. Ta rebelloia-ta ezagutu bez. Pentsaizu zenbat robelloia-eta zenbat zerian. Elgetara pasatzen giñan gu ta dana rebolloia! Rebolloia horretzek bakarrik jaten eban Eibarren [Jimeno katalanak]. Iñork bez gehixago. [Katalanak?] Bai. (...) Ta beste bat dago ez dana ezagutzen, ona, ongua: Satan, guk esaten detsaguna. Goixa igual-iguala onguana, ta behia (...satan ez; satan modokua; zera, satan txarra da) ta behia mangu gorrixa daka. Ba hori, onenetakua da. Iñork kokorik ez detsa atakatzen. Sanuena da, ta mangua gorrixa dakalako jentia ez dau hartzen. Ta hori haritxetan-eta hartzen da”.



Kaletarrak baserrira gaztaina erreak jatera


Karobiak aspaldi galdu ziren, baina txondorrek beranduago arte iraun dute. Eibar inguruko mendi guztiak basoz beteta zeuden: gaztainak, pagoak... Gaztaina mordoa zituzten etxean. Gaztainak saltzen zituzten eta kaletarrak baserrira gaztaina erreak jatera joaten ziren.

Eibar inguruko basoetan, ikazgintza eta txondorrek ugariak izan ziren 1940 ingurura arte. Argazkian Arrateballeko Barrenetxe baserri parean 1965 inguruan egindako txondor handia, Eibarren egindako azkena. EGO IBARRA



Julian Echeverria Oruna
(1913 – 2005)

Otaola-Kiñarraga bailarako Ubitxa baserrian jaiotakoa. Aita, baserri hortakoa; ama, Jobita Oruna (Aramaiokoa). 14 urterekin Eizaganera joan zen lanera, baskulagintzan ikastera. 20 urterekin, Bittor Sarasketanera. Han, 65 urte bete arte jardun zuen lanean.



Julian Echeverriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Gerra ostian ondiok txondorrek eta eitten ziran?] Bai. Gerra ostian be bai! [Ta noiz amaittu ziran karabixak eta txondorrek eta?] Karabixak antxiña e! Karabixak nik hamar urte nekazela desaparexiduta eguazen ya. Jentiak laga eñ etsan. Txondorrek ointxe arte. (...) Badakizu, arbolak be asko ez dago ta, piñua dago ta bakarrik... Piñua ikatza eskasa da! Ixa ez dau balio! (...) [Basuak egongo ziran ederrak, ezta?] Bai. Lehen pagoz beteta eguazen honek danok! [Zelakuak ziran lehengo mendixak?] Dana pagua ta zera, gaztaiña zeguan lehen dana! Hau Ubitxa aldia, danori, hasi hor kanpofubolian... badakizu nun dagan kanpofubola, hasi hor Kaskarraingua ta horrek... zinia badago ba? Hasi bai hor, e? Ta Urki, Galdaramiño... hori falda guztiori dana gaztaiña zan. Gaztaiña e? Ta hamen otubrian - gaztaiña otubrian heltzen da - holaxen egoten zian horrek. Gaztaiña batzen? Zer pentsatzen dozu ba? Gaztaiña ta esnia. Besterik ez genduan eukitzen ta! (...) Fijatzen zara zenbat gaztaiña egoten zan! Holako lokalak bi! Esajerau barik hori e!”

<<< LEIRE BARRIUSO • Geoparkearen kudeatzailea >>>

“Prehistoria arloan Geoparkea erreferente bihurtzea nahiko genuke”

Geoparkeak 10 urte bete ditu eta 'Itsas ondarearen jaialdia' egin dute aurreko asteburuetan Zumaian eta Mutrikun urteurren berezia ospatzeko. Asteburu honetan Debaren txanda izango da, ospakizunei amaiera emateko. Leire Barriuso eibartarra da Geoparkeko kudeatzailea eta 10 urte hauen erreparasoia egin dugu berarekin.

BALEIKE

Zertan datza 'Itsas ondarearen jaialdia'?

Itsas ondarea berreskuratzen diharduen Zumaiaiko Beduola elkartearekin elkarlanean egindako jaialdia da. Batetik, ekintza nagusi bat egingo da, non Hiru Anai batela ikusgai egongo den. Orain dela 100 urte egindako batela da eta, bere historiaren berri emateaz gain, zaharberritze lanak zuzenean ikusteko aukera egongo da. Bestetik, arratsaldean (17:00etatik 19:30era) ontzi tradizional batean nabigatzeko aukera egongo da (aurrez izena eman behar da, erakusketan). Eta azkenik, herri bakoitzak ezaugarri propioak dituzenez, gauza ezberdinak prestatu ditugu. Deban, adibidez, material-erakusketa (sasoi batean arrantzarako erabiltzen ziren erremintak) eta marinel korapiloen tailerra egingo dira. Gainera, Debako elizara bisita prestatu dugu, lotura handia izan duelako itsasoarekin beti (geoparkea.eus-en eman behar da izena).

Urteurren hau kulturarekin eta ondarearekin lotu nahi izan duzue, ezta?

Geoparkea geologiarengatik da ezaguna, baina natura eta kultura ere bada, herritarrei gerturatzeko tresna egokia. Zumaia, Mutriku eta Deba kostaldean daude eta harreman estua dute itsasoarekin, baina ezberdina. Zumaia ontzioletan du zerikusi handiagoa, Debak mer-



kataritzarekin eta Mutrikuk arrantzarekin.

Nolako bilakaera izan du Geoparkeak 10 urte hauetan?

10 urteak azkar pasa dira, baina gauza asko egiteko aukera izan dugu. Geoparkea geoturismoa bultzatzeko sortu zen eta ikerketan, zientzian, hezkuntzan... gauza asko egin ditugu. Geoturismoa asko garatu da eta horren erakusle da bisita gidatuen programa.

Zeintzuk izan dira Geoparkearen mugarrak?

2010ean sartu ginen Geoparkeen Sarean eta geoparke guztiek ebaluazioak pasa behar dituzte lau urtetik behin. 2014ko ebaluazioa nota onarekin pasa genuen. Gero, 2015ean, munduko geoparke guztiak Unescoren Geoparke izatera pasa ziren eta horrek demaseko bultzada eta oihartzuna eman zigun nazioarte mailan. 2018an berriz eman ziguten argi berdea eta hurrengo ebaluaketa 2022an dugu.

Zein da zuen aurreikuspena 2022ra begira?

Argi berdea emango digutela uste dugu. Beste geoparkeen esker ona dugu, gauzak ondo



“Labarra, flyscha... beti egon dira hor, baina ez genien baliorik ematen”

egiten diren seinale. Egia da 10 urte hauetan gauza asko egin direla, baina erronka berriak ere sortu dira.

Nolako erronkak?

Prehistoria arloan Geoparkea erreferente bihurtzea, adibidez. Deba ibaiaren inguruan koba-

“Naturguneak oso aukera onak izan dira konfinamenduk irten garenean”

zulo asko dago eta garrantzia handia dute arkeologia mailan. Kultura, hezkuntza eta turismo aldetik oso gai indartsua izan daiteke. Datozen urteotan gai honen inguruan ikerketak bultzatuko ditugu, esku artean zein baliabide ditugun jakin eta horrekin nola jardun

dezakegun jakiteko. Eta bes-tetik, itsas ondarearen bidetik lan egingo dugu.

Nola egiten diharduzue aurre pandemiaren erronkari?

Udaberrian aurreikusten genuena desastre bat zen, baina ez da horrela izan. Naturguneak aukera onak izan dira konfinamendutik irten garenean, jendeak toki irekietara joan nahi izan duelako. Bisitari aldetik ez dugu jaitziera handirik izan. Ikusiko dugu udazkena eta negua nola datozen, baina egoera honetan nahiko indartuta atera garela uste dut.

Geoparkeak mundu osoko bisitariak jasotzen ditu, baina egin duzuen lanak guk geuk bertan duguna gehiago balo-ratzeko balio izan du?

Duda barik! Labarra, flyscha... beti egon dira hor, baina ez genien baliorik ematen ez gene-kielako nolako garrantzia zu-ten. Geoparkeak egin duen pedagogia garrantzitsua izan da. Unescok ospea eman digu nazioarte mailan eta jendea ez dator turismoa egitera ba-karririk, ikertzera ere badator, eta horrek lagundu du bertako jendeak bertan duena hobeto ezagutzeko.

zarelakopara

Izen-abizenak _____ Helbidea _____
Tfnoa / emaila _____ NAN _____
Jaiotze data _____ K/K zenbakia _____

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

* Urteko kopuruak dira

...eta kitto!
Euskara Elkarte

Urkizu 11
943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkartea@etakitto.eus



Iokin Elortza

IOKIU ELORTZA

Eukaliptoia

Eukaliptoia ona da. Edo ez? Oso ezaguna da eukaliptoak arnas-arazoak osatzeko duen ahalmena, eta nahiz eta azken urteetan bere erabilera gutxitzen joan den, asko gara bizitzan zehar gure osasuna hobetzeko eukaliptoia erabili dugunak.

Katarroak, bronkitisak, mukiak garbitzeko... Erabilera asko ditu, arnas-arazoak ez diren beste osasun-arazo askorentzat ere bai, adibidez, diabetesarentzat.

Denboran zehar ezagutu ditugun eukaliptoaren erabilera mota nagusiak hurrengo hiru hauek izan dira:

Infusioan: eukalipto-hostoak irakiten dagoen uretan minutu batzuk utzi eta ezti pixka batekin ur hori edan.

Arnasketak: Eltze batean eukalipto-hosto batzuk irekiten eduki. Ondoren, burua zapi batekin estali eta eltze gainean jarri arnasketak egiteko.

"Arazo bat sortzen ari zaigu eta ez dugu osasunik izango ingurugiro osasuntsu bat gabe"

Difusioan: Ohikoa da etxeetako berogailuetan eukalipto pixka bat duen baso bat ur jartzea etxeko giroa hezatu eta arnasketa hobetzeko.

Oso ondo, nork ez du horrelakorik noizbaiten egin? Baina, zergatik ari da orduan gaur egun eukaliptoia hain fama txarra hartzen? Ez dauka honekin guztiarekin zerikusirik. Arrazoia, eukalipto- zuhaitzak ingurugiroan eragiten duen kaltean dago.

Eukaliptoia ez da gure lurretako zuhaitza, Ozeaniatik dator, eta bere ezaugarrietako bat bizirauteko behar duen ur kopurua da. Horren ondorioz, landatuta dagoen lurretako hezetasuna joan eta lehortu egiten da.

Oso erabilgarria izan zen, adibidez, paludismoarekin amaitu nahian eltxoak bizi ziren inguru heze eta putzuz betetakoak lehertzeko. Eukaliptoak landatu eta eltxoen bizi-lekuak akabo. Baina, gaur egun, etekin ekonomikoak lortzeko sustatzen ari diren eukalipto-landaketa masiboak gure lurra lehortzen ari dira. Honek, gure basoen biodibertsitateari eragiten dio, landare eta animalietan, eta nahiz eta itxuraz eukaliptozko basoak biziak diruditen, lurra basamortu bihurtzen ari dira.

Arazo bat sortzen ari zaigu eta ez dugu osasunik izango ingurugiro osasuntsu bat gabe.

Zaindu.



Nagore Fernandez

NAGORE FERNANDEZ

Fatxaden berriztapena: K-rekin komeriak

Ohar bat eraikinaren fatxadak zaharberritzeko asmotan diren bizilagun-komunitateentzat: irailaren 24an indarrean jarri diren neurri berriekekin, bete beharreko baldintzak zorrotz egin dira. Eta zer esan nahi du "zorrotz" horrek? Astun samarra den arren, azaltzen saiatuko naiz.

"Fatxadak berrizterakoan derrigorrezkoa izango da isolamendu termikoa gehitzea"

Ia-ia ziur: Fatxadak berrizterakoan derrigorrezkoa izango da isolamendu termikoa gehitzea, fatxada aireztatuak edo SATE izenez ezagutzen direnak eginez, esaterako. Eta ez du edozein lodierako isolamenduk balioko, gainera, arauak ezarritako baloreak lortu beharra baitago.

Arau horren arabera, "K" parametroa izan behar da kontuan, eraikinaren azal osoak energetikoki duen berotasun galaren batezbestekoa kalkulatzeko duena. Eraikinaren azal hori, ordea, ez dute fatxadetako paretek bakarrik osatzen,

leihoeak, teilatuak, lurrarekin kontaktuan dagoen azalera edo aldameneko pegorakoekin elkarbanatzen dugun hormek ere osatzen dute. Eta batezbestekoa denez kalkulatu beharrekoa, aukera ezberdinak ditugu, baina pentsa: ez badugu fatxadetan demaseko lodieradun isolamendua jarri nahi, posiblea da leihoak aldatu beharreko egoeran topatzea... Hau da hau pagotxa!

Badago salbuespen pare bat: batetik, eraikinak, bere interes edo balio arkitektonikoa dela eta, babes berezirik badu, ez du derrigorrez isolatu beharrik izango. Bestetik, zaharberritzen den elementuaren azalera eraikin osoaren azalaren %25 baino gutxiago neurtzen badu, orduan ere ez.

Baldintzak hor daude, orain araua nola bete izango da kontua... Azalaren arabera, fatxada bat aurten berritu eta bestea datorren urtean? Edo guztia batera egin ahal izateko kalkuluak ("K"renak eta ekonomikoak, noski) lehenbailehen egiten hasi? Komeria galantak edozein kasutan...!

>>> Hierros Servando Eibar Eskubaloia taldeari, ondo borrokatzea egokitu bazitzaion ere, garaipena lortu zuen Ipurua kiroldegian Donostiako Egia Teila Fabrikaren aurrean. Neurketa parekatua joan zen azken minutuak arte eta Ruben Fuentes eibartarren atezainak azken orduan egindako bi geldiketek berebiziko garrantzia izan zuten bi puntuak Eibarren geratzeko. 22-19ko azken emaitzak erakusten duenez, defentsalana nagusitu zen neurketa osoan, atsedenaldira ere hamarna berdinduta iristeraino. Bada, dena dela, datu bat aipatzea merezi duena: hain gol gutxi lortuta ere, Fernando Fernandez taldeko 11 jokalarik

Eskubaloiko lehen taldeak, garaipen bidetik jarraitzeaz gain, lidergoari eusten dio



Denboraldi honetan jokaturako partidu guztiak irabazi ditu H. Servandok.

lortu zuten aurkariaren atea zulatzea, golak ondo banatuta egon ziren seinale. Mikel Zuloaga izan zen, beste behin, goleatzaile nagusia, sei golekin; Egiako taldean Mikel Royok erakutsi zuen bere ohiko abilezia eta iaz multzoko goleatzaile nagusia izan zenak zazpi lortu zituen oraingoan. Zaletuak ere bikain portatu ziren eta ongo gozatu zuten garaipenarekin.

Hierros Servando Eibarrek lehen postuari eusten dio horrela, Estudio Mamata Zaragoza Ademarrekin berdinduta. Bihar jokatu beharreko partiduan aurkari zaila izango dute eibartarrek, Tolosara egin beharreko bisitan. Zorte onena opa diegu Usabal kiroldegian.

Polanco anaien saskiratzeek eman zioten garaipena Aviari

>>> Bigarren maila probintzialeko talde berriak sendo dihardu mailari eusteko borroka horretan eta oraingoan garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Alde Zaharra Casa de la Rioja taldearen aurrean (62-57). Aurkariak sailkapeneko bigarren postuan amaitu zuen

azken denboraldia, 15 partidu irabazi eta bost bakarrik galdu. Horregatik, garrantzi handia izan zuten azken emaitzan Polanco anaiek saskiratutako bederatzi hirukoek. Bihar ere Ipuruan jokatu dute, Bergara-Soraluzeren aurka, arratsaldeko 18:15etik aurrera.



Momentuz ondo egokitu da Avia Eibar Saskibaloia maila berrira.

OHARRA
Banaketa-zerrenda berritzen ari gara. Aldizkaria jasotzeko edo jasotzen jarraitzeko eman izena beheko zerrendan

eta kitto!
ASTIBARRIA

Izen-abizenak

...eta kitto! **astekariko**

ETXERIK ETXEKO BANAKETA-ZERREND BERRITZEN DIHARDUGU

Eibarko etxeetan aldizkaria **JASOTZEKO** edo **JASOTZEN JARRAITZEKO** zerrendak bete behar dituzue.

Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan jarriko dira orriak:

**JULIAN ETXEBERRIA - ZULOAGATARREN -
SANSABURU - ERREKATXU -
BIDEBARRIETA - URTZAILE - ARANE**

banaketa.etakitto@gmail.com

<<< **LORENA VALDERAS**
EDF Logroñoko jokalaria >>>

“Eibar ustekabea izan daiteke Iberdrola Ligan”

Eibar Iberdrola Ligara igo da azken denboraldian, baina gure herriko jokalaria honentzat hirugarren denboraldia izango da maila horretan, Logroñorekin. Urkin eta Eibarren hasitako foballariak Aurrera Vitorian jokatu zuen ondoren, Atletico de Madrid taldera joan aurretik: “Bigarren taldera nindoan, baina hiru astetan lehenengo taldearekin entrenatzen nengoen”. Seigarren denboraldia du Errioxan; etxetik gertu dagoenez, ez da arraroa Unben ikustea, bere bihotzeko taldearen partiduak ikusten. Emakumezkoen foballak aurrera egin badu ere, “gu profesional bihurtu gara, baina orain Ligari tokatzen zaio. Gurea fondoko lasterketa bat da”.

Zer da zuretzat Kopako finale-rako sailkatzea? Orain arteko lorpen handienetakoa akaso? Pertsonalki, asko eman dit. Orain arte finalerdietara ere iritsi gabe nengoen eta lortu duguna hor geratuko da. Entrenatzaileak dioen moduan, unea bakarrenetakoa da eta gozatzea tokatzen zaigu.

Zelan ikusten duzu final hori: Bartzelona izatea aurkaria, 2021eko otsailean jokatzeko? Hainbat oztupo izango ditugu bidean. Hasteko, oso egutegi estuaren aurrean gaude, azaroan hiru astetan eguazten eta asteburuetan jokatzeko egokitu-tuko zaigulako. Horrek %200 ematea eskatuko digu, izan daitezkeen lesioekin. Eta Bartzelona handia aurrean! Gure taldea berria da eta otsailerako ehunduago egon gintezke.


Ia hamarkada bat bete da Eibartik irten zinetik. Zelan ikusten duzu orain arte foballean egindako ibilbidea? Argi dut nire formaziorako balio izan duen ibilbidea izan dela, bai pertsona moduan eta baita

jokalaria bezala ere. 18 urterekin laga nuen Eibar eta, Logroñora etorri aurretik ere, Atletico de Madrid-en aldageletan selekzioetan jardundako jokalaria handiekin egoteko aukera izan dut. Asko aberastu nau horrek.

Zure seigarren denboraldia da Logroñon. Eroso zaude? Beste lan batekin partekatzen duzu? Iaz arte bai partekatzen nuen, baina goizez entrenatu ondoren ordu asko kentzen zizkidan horrek. Orain foballari guztiz emanda nago, gaur egungoa gero ez delako bueltatuko. Oso zoriontsu naiz horrela eta bide hori da nire lehentasuna.

Postu askotara egokitu zara zure taldeetan, baina nor duzu gustukoena?

“Eibarrek aukera eman zidan kanpora irten eta nire formazioan aurrera egiteko”



Goian gustatzen zait jokatzeko, aurrelaria izan naizelako beti; punta-erdian izan, puntan, hegaleko gisa... Egia da, baita ere, sasoi batean erdilari jokatu nuela Logroñon.

Aurrekoari lotuta, zein ezaugarri definitzen zaitu hobekien? Moldakorra naizela eta dena ematen dudala. Egia esateko, bestela ezin da aurrera egin, ikusita batez ere atzeritarrekin eta fisiko arloan emakumeon foballak izan duen garapena azken urteotan.

Hori gutxi balitz, denboraldi amaieran lau taldek galduko dute maila. Hor badago arriskua, ezta?

Bakarra balitz! Kontuz ibili beharra dugu pandemiarekin ere: ligaren erdia jokatu bada dago eta bertan behera geratzen bada, gauden postuen arabera jokatu dute. Horrez gain, behetik datozen taldeak gero eta indartsuagoak dira. Parekotasuna da nagusi gaur egun.

Zelan ikusten duzu zure EDF Logroño taldea?

Hirugarren denboraldia da 1. Mailan eta kalitatean asko egin dugu aurrera, Champions-ean, Bartzelonan eta At. Madriden aurrez ibilitako jokalariekin. Gure eskolak aukera bikaina eskaintzen du formaziorako, etenik gabeko lanarekin.

Eta Eibar igo berria?

Askotan izaten naiz Unben eta aurtengo ustekabea izan daiteke. Taldea egin dute eta erronkari ilusio bereziarekin ekin diote. Gosea dute, oldarkorak dira eta mentalitate irabazleaz jabetu dira.

Zer da zuretzat zure herriko taldearen aurka jokatzeko?

Bihotzean daramadan taldeari aurre egitea oso berezia izango da niretzat. Hamar urte atzera egitea bezalakoa.

Gustatuko litzaizuke gorriurdinez berriro jantztea?

Etorkizun batean, jakina! Baina ez dut epe luzera begiratzen. Horizandako formazioari esker ireki nintzen eta horrek aukera eman zidan hazten jarraitzeko. Eibar ispilu bikaina da.



Barrenetxeak irabazi zuen Valenciaga Memoriala, Ballesterosek Espainiako Kopa

>>> Aurreko domekan jokatu zen gurean afizionatuen elite eta 23 urtetik azpiko mailako Espainiako Koparako baliaigarria zen azken proba. Eguraldia ere nahiko portatu zen eta lasterketa zaletasuna sortzen duten horietakoa izan zen, zaletuen presentziarik gabe jokatu behar izan bazen ere. 153 kilometro zituen aurtengo edizioak, normalean baino 15 gutxiago, baina azken 20 kilometroak aurreko urteetakoak baino gogorragoak izan ziren, azkenean Arraten amaitzeko. 24 talde izan ziren irteera puntuan eta, parte hartu zuten 166 txirrindularitik, 112k amaitu zuten lasterketa. Baque taldeko Jon Barrenetxeak aurrea hartu zien azken metroetan Caja Ruraleko Miguel Angel Ballesteros eta Telcom-eko Aonner Alejandro Gonzalez. Zortzi segundora helmugaratu zen

Pelayo Sanchez, 12ra Xabier Mikel Azparren eta 22ra beste hirukote bat. Irabazleak orduko ia 39 kilometro egin zituen batez beste, ibilbidea lau ordu azpitik amaitzeko. Mendiko sailkapena Pelayo Sanchezentzat izan zen, tarteko helmugena Alex Diazentzat eta Caja Ruralek bereganatu zuen taldekako sailkapena. Bestalde, Imanol Alvarez (Laboral Kutxa - Fundación Euskadi) izan zen Debabarreneko onena, Eibar Energia Hiria taldeko Mikel Perez de Obanosen aurretik. Bestalde, Espainiako Koparen azken sailkapenean Ballesteros nagusitu da, Lizarteko Jordi Lopez eta Kometa taldeko Vicente Hernandezen aurretik. Jon Barrenetxea irabazleak, bestalde, Euskaldun Torneoa bereganatu du Eibarko Txirrindulari Elkar-teak antolatutako probarekin amaitutako denboraldian.

Martitzenean Arraten amaituko da Espainiako Itzuliaren 1. etapa

>>> Martitzenean hasiko da Espainiako Itzuliaren aurtengo edizioa Arrateko helmugan amaituko den etaparekin. Normalean horrelako itzuliak zapatuetan hasten badira ere, oraingoan Herbeeretan jokatzeak ziren lehenengoko hiru etapak bertan behera geratu direnez hilaren 20an abiatuko da lasterketa. Tropolak Irunen hasiko du etapa eta, hirugarren mailako Udana, Kanpazar eta Elgeta gaineratik pasatu ondoren, Arraten amaituko du (troplean ez seguruenik) egun

horretakoa, 170 kilometro inguruko ibilbidea osatzeko.

Aurretik ere Arratek eta Eibarrek hartu dituzte irteerak eta helmugak Espainiako Itzulian: 1959an, Eibar-Gasteiz (Riviere), 1963an, Bilbo-Eibar (Ignolin) eta Eibar-Tolosa (Uriona), 1972an, Zangotza-Arrate (Tamames) eta Eibar-Bilbo (M.M. Lasa), 1974an, Miranda-Arrate (Tamames) eta Eibar-Donostia (M.A. Garcia) eta, ia lau hamar-kadako hutsunearen ondoren, 2012an Oionen hasi eta Arraten amaitu zen (Valverde).



Aitor Hernandezek Bizkaiko cross-country txapela jantzi du

>>> Specialized-Ermua Innpulso taldeko txirrindulariak modu onean dihardu prestatzen hemendik gutxira hasiko den ziklo-kros denboraldia. Horrela, aurreko domekan Bilboko Montefuerte parkean jokatutako elite mailako cross-country modalitateko Green Series proban hirugarren postua lortu zuen eta, emaitza horrekin, Bizkaiko txapela esku-

ratu zuen. Miguel Sanchezek eta Julen Latorrek hartu zioten aurrea guztiz lokaztuta zegoen eta maila tekniko handia eskatzen zuen Bizkaiko hiriburuko zirkuituan: "Polita zen, jaitsiera teknikoak eta ahalegin berezia eskatzen zuten igoerekin. Kilometroak egiten jarraitzea ondo datorkit, aurrean egoteko erritmoa lortzen noalako", zioen Aitor Hernandezek.

ile apaindegia
DOLLS
estilistak
Julian Etxeberria, 7 943 033 967

San Andres Gozotegia
● tartak
● enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Ezetz asmatu zenbat pisatzen duen! lehiaketa jarriko du abian Elkarteak

Egoerak hala behartuta aurten ...eta kitto! Euskara Elkartearen kale-presentzia nabarmen jaitsi da; kalean egiten dituen ekitaldietako asko ezin ditu egin eta ez ditu egingo, eta horrek esan nahi du diru-iturri asko ere bidean geldituko zaizkiola Elkarteari. Baina, zailtasunak zailtasun, jarduna egoera berrira egokitu eta ekimen berriak eskainiko dizkigu ...eta kitto!-k ikasturte honetan.

Urriaren 24an izango dugu Eibarren ekimen berri horietako lehena. Lehiaketa izango da, lehiaketa bizia eta zirikatzailea, herritarren jakinmina piztuko duena. **Ezetz asmatu zenbat pisatzen duen!** da lehiaketaren izena eta horixe izango da parte-hartzaileek egin beharko dutena: ...eta kitto!-k egunean bertan ikusgai jarriko dituen produktuen pisua asmatzea, hain justu ere.

Gozo-gozo etorriko da lehena Urtean zehar lehiaketa berri honen hainbat saio egiteko asmoa dauka Elkarteak. Lehena



urriaren 24an izango da, hurrengo asteko zapatuan, eta estreinaldirako produktu gozoak egongo dira herritarren eskura. El Tío Palancas gozokiendak eta San Andres gozotegiak eskainiko dituzte lehenengo lehiaketako produktuak: gozokiz egindako tarta bitxia emango du lehenak, eta ohiko tarta bigarrenak.

Bien pisua asmatu

Lehiaketaren mahaia Untzagan egongo da, 12:00etatik 14:00etara. Bi tartak ikusgai egongo dira, alde zuzenetik pisatu ondoren: "Egunean bertan El Tío Palancasera eta San Andreseira joango gara; tartak pisatuko ditugu, guztia grabatuko dugu eta pisuaren tiket bana gordeko ditugu dendariek eta guk", diote Elkartetik. Hori egin eta gero, Untzagan jarriko dute ikusgai guztia, eta parte hartzen dutenek bien pisua asmatu beharko dute, bi tartek elkarrekin zenbat pisatzen duten.

Parte-hartzea 2 euro

Pisu baten alde jokatzeko bi euro ordaindu beharko da eta taula batzuetan agertuko diren pisuetako bat aukeratu. "Taula batean hainbat pisu agertuko dira eta parte hartzen duenak bat aukeratuko du, edo batzuk, jokatu nahi duenaren arabera. 14:00etan mahaia itxiko dugu, eta irabazlearekin harremanetan jarriko gara saria jasotzera etor dadin". Irabazleak tarta biak eta hiru botila xanpain eramango ditu etxera. Pisu zehatza inork asmatuko ez balu, pisu horretara gehien hurbildu dena izango litzateke irabazlea,

Lehiaketa mahaia Untzagan egongo da 12:00etatik 14:00etara

beti ere pisu zehatzetik pasatu ez bada.

Azaroan eta abenduan berriro

Datozen hilabeteetan ere ekimen berarekin jarraitzeko asmoa dauka Elkarteak. "Lehenengo



saioan eibartarren erantzuna ona izango dela pentsatzen dugu; horrelakoetan herriak beti erantzuten digu ondo, eta urrikoaren atzetik hurrengo bi saioak ere pentsatu ditugu. Ezin dugu asko aurreratu, baina esan dezakeguna da, lehena gozotik joango bada, hurrengoetan gazira joko dugula, eta sariak ez direla nolana hikoak izango. Irabazlea pozik itzuliko da etxera, seguru". ■

Gurasoak Berbetan egitasmoak ikasturteko lehenengo irteera egingo du



Urriaren 24-an, zapatua, egingo dute irteera, Mallabiako Estakua baserria. Etxeko behiek ematen duten esnearekin egiten dute jogurta bertan. Durangaldeko denda txikietan saltzen dute eta salmenta zuzena bultzatzen dute. Aitzol Uriartek dauka ekoizpen txiki horren ardura.

Joan den ikasturtean Gurasoak Berbetan egitasmoak bertan behera laga behar izan zituen aurreikusita zituen irteerak. Orain, egoerak lagatzen duen neurrian, irteerak berreskuratu nahi ditu ...eta kitto!-k

eta, hori horrela, Mallabiako Estakua baserria bisitatuko dute hemendik astebetara.

Behien zaintza gertutik

Estakua baserriko lanak bertatik bertara ikusiko dituzte guraso berbalagunek eta haien familiek: behien zaintza, larreren erabilera, eta jogurta nola egiten den. Prozesu osoa ezagutuko dute. Esne-behiak dituzte, 17 guztira, eta esne-behi horien esnea eta jogurtak ekoizten ditu Aitzolek.

Euren produktua egitea pentsatu zutela esan digu, "gure


esnari balio erantsia emateko. Markinako Leartiker enpresako Malen Sarasua eibartarrak erakutsi digu jogurta egiten. Pare bat urte daramatzagu martxan".

14 hektarea 17 behirentzat

Aitzolek dioenez lurra eta abelburuen arteko oreka gordetzen dute; udaberrian hasi eta udagoienara arte behiak larrera ateratzen dituzte eguraldiak laguntzen duenean eta horrek, "behien ongizatean eta esnearen kalitatean eragina du. Transgenikorik gabeko pen-

tsua erabiltzen dugu eta jogurta egiteko ez dugu esne hautsik erabiltzen", Aitzolek.

Estakua baserriaren ardura-dunaren hitzetan esan daiteke sasoiko eta bertoko produktua gehiago baloratzen hasi dela jendea: "Bertako ekoizpen txikiak kontsumitzera-koan, jogurta, gazta, ogia edo ortuariak kontsumitzeaz gain, ingurumen, gizarte eta ekonomia justuago baten alde egiten ari gara. Horren aldeko apustua handitzen ari da eta pausu gehiago ematera animatuko nuke jendea".



Sare sozialetan euskaraz eta seguru

Izenburu hori duen hitzaldia antolatu du ...eta kitto! Euskaraz Elkarteak Berbetan programako berbalagunentzat. Sare sozialetan eta Internetez babestuta eta euskaraz gozatzeko zein pauso eman behar diren azalduko digu Xabier Martinek (iparra.eus), urriaren 27an, martitzena, Arrate Kultur Elkartean 18:30etik aurrera.

Martinek, besteak beste, ondorengo galderei erantzungo die: "Nondik deskarga ditzakegu aplikazioak euskaraz? Nola konfiguratu gure sistemak euskaraz? Zeintzuk dira euskaraz erabil ditzakegun aplikazioak?". Horrez gain, sarean gaudenean erabiltzaileen pribatutasuna nola babestu, zein tresna erabili eta Interneteko arriskuei buruz ere hitz egingo digu adituak.

<<< **KIKE AMONARRIZ • TOPAGUNEko presidentea** >>>

“Euskara eskolara mugatzeak dauzkan arriskuak agerian utzi ditu pandemiak”

"Berrindartu eta jauzi" gogoeta argitaratu zuen Topalabe taldeak uda aurretik. Bi eremu azpimarratzen dira gogoetan bereziki: lan mundua batetik, eta eremu ez formala bestetik. Eta helburu modura, orain arte ezagutzaren hazkundera egindako ibilbidea osatzeko, erabileran jauzi bat egitea. Gogoeta horretaz eta COVID-19ak euskararen biziberritze-prozesuan izan duen eraginaz egingo du berba Kike Amonarrizek urriaren 27an Portalean, AKEBAIk "11 Berbaldi" ekimenaren barruan antolatutako solasaldian.

Bost urte dira Topalabe taldeak "Berrikasi eta Berriki" gogoeta kaleratu zuela, eta aurten "Berrindartu eta jauzi" dokumentu berria kaleratu duzue Topaberri aldizkariaren 67. zenbakian.

Topalabe taldea Topagunearen inguruan sortu zen orain dela zazpi bat urte, euskararen biziberritzearen inguruan hausnartzeko. Sasoi hartan (2015ean) ateratu genuen "Berrikasi eta Berriki" txostenean ordura arteko euskararen biziberritze-prozesuaren irakurketa kritikoa egin genuen, eta aurrera begira zein oinarri jarri beharko lirartekeen hausnartzen genuen. Ideia gakoetako bat zoru komunarena zen. Iru-ditzen zitzagun oso garrantzitsua zela euskararen inguruan genituen amankomuneko puntuak eta adostasunak lantzea, bai eragile desberdinen artean, bai erakundeen artean.

Hurrengo txostena, "Berrindartu eta jauzi" izenekoa, uda aurretik kaleratu duzue. Zer gertatu da bost urte hauetan? Gauza batzuk oso positiboak izan dira, elkarlanerako aukerak ugaltu egin dira, aurre-pauso asko eman dira, baina puntu kezagarriak ere azaldu dira. Aurten kaleratu dugun txostena pandemiaren aurretik idatzi genuen eta hor kezka batzuk agertzen dira, ezagutzaren eta erabileraren inguruan.

Azken neurketek beheranzko joera adierazten dute. Txosten horren tesi nagusia da badi-tugula baldintzak euskararen biziberritze-prozesua berrindartzeko eta jauzi bat emateko.

Jauzi sendo bat emateko garaia azpimarratzen da eta bi eremu aipatzen dira, lan-mundua eta eremu ez formala.

Galdera berriak sortu dira eta pandemiak, gainera, galdera horiek areagotu egin ditu. Galdera gakoa da: zeintzuk dira hurrengo pausoak? Orain arteko biziberritze-prozesuan hezkuntzak eta euskalduntze-mekanismoek izan dute garrantzirik handiena, eta hor jarri dira baliabide gehienak, logikoa zen bezala. Aurrerapauso nabarmenak eman dira: haur eta gazteen euskararen ezagutzaren ia %100era iritsi gara. Zeintzuk dira hurrengo pausoak? Hor bi esparru definitzen ditugu. Lehen premisa da eskola ezinbestekoa dela euskararen ezagutza hobetzen jarraitzeko; baina eskola ez da nahikoa eta eskolan egiten den lanak eremu ez formalean egiten den lanaren babesa eta laguntza behar du. Jauzi handi bat emateko baldintzak eta beharra dago.

Pandemiak, zentzu horretan, eskola eta euskarari buruzko gauza asko erakutsi dizkigu, ezta?



Kike Amonarriz, TOPAGUNEko presidentea.

Pandemiak ere erakutsi digu zein egoera zaurgarrian gelditzen diren haurrak eta gazteak, batez ere zonalde erdaldunetakoak, eskola desagertzen denean. Gure ahulezia batzuk oso agerian gelditu dira: euskalduntzearen biziberritzeak eskolara mugatzeak dauzkan arrisku eta gabeziak, hain zuzen ere. Hori dela eta, haur eta gazteei zuzendutako egitasmo eta zerbitzuen ardura duten erakunde eta eragileei ezinbestean pausoak eman behar direla adierazi nahi diegu. Horretarako aukera badago. Ikusentzunezkoen eta teknologia

berrien eremu osoan ere euskarak dituen ahuleziak oso nabarmen ikusten ari gara bizi dugun pandemia-sasoian. Alderdi positibo bat aipatzearen, kohesio soziala zein garrantzitsua den erakutsi digu koronabirusak.

Bigarren esparru nagusia lan-mundua litzateke.

Oso galdera sinplea da: gure haur eta gazteak zertarako ari dira euskaraz ikasten gero ezin-go badute lana euskaraz egin? Planteamendu horien inguruan hitz egiten dugu txostenean eta horretaz egingo dugu berba laster Portalean.

<<< IDOIA ARGOITIA • AKEBAI-ko koordinatzailea >>>

“Herritarrak aktibatzea eta saretzea da helburua”

Badira bost urte, Eibarko herritar, eragile, elkarte eta erakundeak aktibatu eta saretuz Eibar euskaldunago bat bilatzen duen Euskararen Plan Estrategikoa onartu zela. Eta hortik jaio zen 2017ko udazkenean Eibarren AKEBAI plataforma. Plan berriaren ekuadorrean gauden honetan, eta, era berean, AKEBAI formalki eratu zenetik hiru urte pasa direnean, atzera zein aurrera begiratzeko unea da. Idoia Argoitiak Eibarko Udalarri plana aurrera eramaten laguntzeko dinamizatzaile lanak betetzen ditu eta berak azalduko digu zein izan den egindako ibilbidea eta gaur egungo egoera.

2016-2025 epealdirako onartu zen Euskararen Plan Estrategikoa berria, baina 2017ko udazkenean arte ez zen AKEBAI eratu. Zer gertatu zen tarte horretan?

2016an zehar Euskararen Plan Estrategikoa, 10 urterako erronkak, helburuak eta lehen-tasunak ezarriko zituen, diseinatzeari ekin zion Eibarko Udalak. EMUN enpresaren laguntzaz bideratutako prozesu parte-hartzailea izan zen. Bertan, Eibarko sektore desberdinetako 50 lagun inguruk hartu zuten parte. Eibarko Udaleko Euskara Batzorde Aholkularia osatzen zuten zinegotziek, euskara teknikariak eta herritarrek egindako ekarpenak ere jaso ziren, eta irailean Udalbatzak aho batez onartu zuen herritarren plana, Udalaren babesarekin. Plana onartuta, partaidetzan aritu zirenek osatutako foroari egitura bat emateko hainbat saio egin ziren; behin hori adostuta, izena eta marka sortu behar ziren, diskurtsoa eratu, eta plana abian jartzeko estrategia pentsatu. Estrategia horren barruan sortu zen eibartarrek San Juan bezperetan, jai giroan, Guinness errekor bat gainditzeko ideia.

Eibartar guztiek dute 2017ko ekainaren 22an lortu zen Guinness errekorra buruan. Zergatik Guinness-a? Zein zen helburua? Helburua Eibarren AKEBAI herrian ezagutaraztea eta egitasmoaren balioak praktikan



2019ko ekainaren 22an lortutako Guinness errekorren irudia.

jartzea zen. Horregatik pentsatu zen Guinness marka hautarena: parte-hartzailea, ilusionantea, berritzailea, erronka puntua zuena, anbizioso, irekia, ausarta, herritarra, irabazlea... izango zelako. Neurriera egindako erronka!

2017ko irailean eratu eta ordutik hona hainbat ekintza eta jarduera burutu dira beste erakunde edota elkarteekin elkarlanean, ezta?

Bai; Guinnessaren arrakastaren ondoren, irailean eratu zen AKEBAI Batzarra, Ekipoa aurkeztu zen, eta arlo ezberdinetako mahaiak eratu ziren. Garbi zegoen hasieratik herritarren plana burutzeko eragile ezberdinen elkarlana derrigorrezkoa zela. Ikastetxeekin, kirol taldeekin, kultur elkarteekin, euskara elkarteekin, Euskalgintzarekin, Eibarko feministekin... el-

"Euskaldunok ahalduntzeko eta euskararen aldeko diskurtsoak berritzeko saioak ezinbestekoak dira"

karlanean antolatu dira hainbat ekintza. Herritarrak aktibatzea eta saretzea da helburua. Egitasmorik zabalena, Euskal Herri mailakoa, Euskaraldia izan da. 2018an Eibarko elkarte, talde, erakundeak eta Udalak bat egin zuten egitasmoarekin, eta parte hartu zuten belarriprest/ahobizi dinamikarekin egin zen ariketan. Orain 2. edizioa izango dugu.



Idoia Argoitia AKEBAIko koordinatzailea.

Badago "11 Berbaldi" izeneko hitzaldi edo mahaingurusaioa, urtero egin izan dena. Ziklo bat da? Zein da jarduera horren helburua?

Hasieratik ikusi zen euskaldunok ahalduntzeko eta euskararen aldeko diskurtsoak berritzeko saioak egitea ezinbestekoa zela. Formazioa etengabekoa izan behar dela uste dugu, eta maiztasun eta formatu ezberdinekin "Hamai-ka berbaldi" izenarekin urtero hainbat saio antolatzea erabaki zen. Batzuetan beste elkarte batzuekin batera antolatu izan dira, herritarrak aktibatzeko eta saretzeko modu egokia baita. Hil honen 27an izango dugu hurrengo berbaldia; Kike Amonarriz etorriko zaigu "Berrindartu eta jauzi" txostena aurkeztera. "Berrindartu eta jauzi"; horra hor hurrengo erronka!



Javier Fernandez Ferrerasesk irabazi du Indalecio Ojanguren lehiaketako ohorezko saria

Indalecio Ojanguren XXXIII. Argazki lehiaketako ohorezko saria Javier Pedro Fernandez Ferreras bizkaitarrak irabazi du, *Mundari* izeneko bildumarekin. Beste Indalecio Ojanguren Sariak hauek dira: Jose Maria Martin Hernandez, Andres Indurain Gutierrez, Manu Barreiro Rodriguez eta Oskar Manso Navas. Euskal

Herri mailan Oscar Gascon Marañon, Aitor Arana Arruti eta Jesus Hernandez Sanchez sariak dituzte. Eibarko saridunak Oscar Baglieto Arano, Markel Ruiz Aranceta eta Pedro Arriola Arrizabalaga izan dira. Eta 8-16 urte bitarteko artean, Mendaroko Malen Carbajo Chaparrak irabazi du. Sari-banaketa urriaren 30ean egingo da.



Iparragirrenen doinuak eskainiko dituzte txistulariek domekan, metalen laguntzarekin

Domekan kontzertua emanango du Usartza Txistulari Taldeak Untzagako arkupeetan, 12:30ean. Esan dutenez, "egitarau aberatsa izango dugu (kalejirak, ezpata dantzak...) baina, batez ere, omenaldia egin nahi diogu Jose Maria Iparragirreri, bere jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzen delako aur-

ten". Hori dela eta, Urretxun jaio zen olerkari, musikagile eta abeslariaren doinuak joko dituzte. Bestalde, kontzertu berezi honetan metalezko instrumentuen laguntza izango dute txistulariek: Unai Cabanzon eta Danel Montero tronpetarekin arituko dira eta Iñaki Orbegozo, berriz, tronparekin.




San Andres Bertso Paper Lehiaketa

Azaroaren 10era arteko epea izango da XXVI. San Andres Bertso Paper lehiaketako lanak entregatzeko. Maila bi izango ditu urteroko moduan: bata, 16 urtetik beherako Eibarko ikasleentzat, eta bestea, 16 urtetik gorakoentzat (Euskal Herri osorako). Gaia eta doinua libreak izango dira. Gazteenek bertso bat edo bi kopia aurkeztu beharko dituzte, eta nagusiek, berriz, lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Lanen hiru kopia bidaliko dira gaitzizenarekin, eta gutunazal itxi batean egilea identifikatzeko datuak hona: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Urkizu 11 solairuartea. 20.600 Eibar. Sariak dagokienez, umeen mailan, lehenak liburu eta txapela lortuko ditu eta bigarrenak liburu eta plaka. Nagusietan lehenak 300 euro eta txapela eta bigarrenak 250 euro eta plaka eramango ditu. Sarituek San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak azaroaren 26an. Aurten berritasun bi izango ditu jaialdiak: batetik, egunean izango da, eta bestetik, estraineko aldiz Coliseo antzokian egingo da.

Poesia eta musika errezitaldia

Bihar, 19:00etan, "El día que me quieras" errezitaldi poetiko-musikala hartuko du Portaleko areto nagusiak. Maite Lorenzok hainbat olerki errezitatuko ditu, Alberto Luis Eguiak teklatuarekin lagunduta. Liburutegien Egunaren ospakizunaren barnean egingo da saioa eta sarrera doan izango da, baina aurretik izena eman beharko da Liburutegian.



Irgoien argazkiak Topalekuan

Gaur 19:00etan zabalduko du erakusketa Jose Luis Irgoien argazkilariak Topalekuan. "Loretxuak" izeneko bere azken bildumako 30 lan ikusteko aukera egongo da, azaroaren 1era arte, astelehenetik domekara, 19:00etatik 21:00etara. Digitalean egindako argazkiak dira, "hanne-mule" paperean eta tinta minerekin.



4	2		5	6			
8	5				3		
		9		1			
6	9		3				5
		4				1	
	3			5		9	2
			3		4		
			2			6	1
		6		9	4		8
						8	5

1				5		2	
			2			3	5
	5	7					4
	8	9	7	1		4	
		5		3	6	8	7
5						6	1
	4	8			7		
	1		5				
							9

soluzioa



5	8	2	9	6	1	9	2	6
1	9	6	2	5	8	9	7	6
6	2	7	8	6	9	5	2	2
2	6	9	5	8	7	2	6	1
2	6	1	9	2	6	7	8	1
7	5	8	1	2	6	2	6	9
6	9	6	2	1	8	6	7	2
9	2	6	8	7	1	5	9	6
8	1	2	6	9	6	2	7	1

SUDOKUAK

soluzioa

6	9	2	8	6	2	9	6	1	9
2	6	5	2	9	1	8	7	6	6
8	1	9	6	9	6	2	2	6	9
1	2	6	9	6	8	6	2	7	1
6	6	2	7	6	8	1	9	2	7
9	9	2	1	2	6	6	6	6	6
7	8	1	6	9	2	6	2	2	2
9	5	1	2	2	7	6	9	6	6
2	2	6	6	9	6	6	1	6	1

LABIRINTOAK



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Farmaziak

BARIXAKUA 16

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

ZAPATUA 17

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

DOMEKA 18

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

ASTELEHENA 19

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

MARTITZENA 20

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUAZTENA 21

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

EGUENA 22


EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

BARIXAKUA 23

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2020an,
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Eloisa Gonzalez de Buitrago Gomez.** 92 urte. 2020-10-5.
- **Santiago Alonso Niño.** 89 urte. 2020-10-7.
- **Timotea Zubizarreta Barrena.** 94 urte. 2020-10-7.
- **Isabel Beitia Oruna.** 98 urte. 2020-10-9.
- **Jorge Bolunburu Salaberria.** 92 urte. 2020-10-12.
- **Jesusa Loidi Erkizia.** 93 urte. 2020-10-12.

Jaiotakoak

- **Nira Marcos Apraiz.** 2020-10-2.
- **Martina Bergaretxe Martin.** 2020-10-5.
- **Praise Edate Okotie Jonel.** 2020-10-5.
- **Uxue Martinez de Marigorta San Andres.** 2020-10-7.
- **Teo Bastida Alfaye.** 2020-10-7.



ek!

**ESKELAK,
URTEURRENAK
ESKERTZAK...
jartzeko:**

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

e k!



ezagutzen dituzu
gure sare sozialak?



etakitto.eus

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkidientzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **JULEN**, atzo 11 urte egin zenduaz-en-eta! Segi beti bezain jator eta alai. Patxo erraldoi bat danon eta, bereziki, Eleneren partez.



Zorionak, **UNAI**, datorren martitzenian 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko danboliñari!



Zorionak, **URKO!** Eguaztenian 6 urte bete zenduaz-en-eta. Besarkada eta musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MIKEL**, bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LAIA**, domekan 7 urte bete zenduaz-en-eta. Primeran ospatu genduan! Musu potolo haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, **AIORA!!** Domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez. Maite zaittugu, potxola!!



Zorionak, **PAUL** Urizar Arruti, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **AITOR**, bixar 3 urte beteko dozuzelako. Etxeko guztien partez. Maite zaittugu!



Ongi etorri hillaren 14an jaixotako **NAIARI**. Musu asko zu ezagutzeko desiatzen dagozen Janire, Elena eta Oscar zure bizilagunen partez.



Zorionak **EDU**, gaur urtiak betetzen dozuzelako, eta **ITZÁ**, datorren barixakuan 17 egingo dozuz-eta! Ondo ospatu. Musu haundi bana danon partez.



Zorionak, **EKHI** Irisarri, bixar 11 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa! Etxeko eta inguruko guztien partez.

ek!

Euskara Elkartaren astekaria

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **17an:** 16:00, 22:00 (antzokia)
- **18an:** 17:00, 20:15
- **19an:** 20:30

"Ane"

Zuzendaria: David Sañudo



2 ARETOA

- **17an:** 19:30, 22:30
- **18an:** 17:00, 20:15
- **19an:** 20:30

"Verano del 85"

Zuzendaria: François Ozon



ANTZOKIA

- **17an:** 19:30 (1 aretoa), 22:30 (1 aretoa)
- **18an:** 20:00
- **19an:** 20:30

"Falling"

Zuzendaria: Viggo Mortensen



ANTZOKIA

- **17an:** 16:00 (2 aretoa)
- **18an:** 17:00

"Koko, dragoi txikia. Oihanean"

Zuzendaria: Anthony Power



Iragarki laburrak



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu berria salgai Urkizun. 2 logela, egongela, sukaldia eta 2 bainugela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Ikusteko arazorik ez. Tel. 666927559.

1.2. Errentan

- Neska euskaldunak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 646369330.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Guztiz berriztuta. Bikoteentzako aproposa. Kanpora begira eta argitsua. Tel. 637587823.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Martxan dagoen ileapaindegia salgai, jubilazioa dela-eta. Tel. 943120218.
- Neska euskaldunak garaje itxia edo marra bat hartuko luke, trasteroarekin, Eibarko erdialdean. Tel. 646369330.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan San Saburu, Txaltxa Zelai edo Urki inguruan. Tel. 645007388. Jasone.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko edo mendian lan egiteko. Tel. 662415709.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 602407338.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Menpekoei laguntza sozio-sanitarioa eskaintzeko tituluekin. Tel. 631908193.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. Tel. 635189294.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltseritza, garbiketa edo basogintza lanak egiteko. Tel. 602188264.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Kurtsoa eginda eta hiru urteko esperientziarekin. Tel. 631627419.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612221327.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 657155078.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Urtetako esperientzia. Tel. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612525893.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 722630678.
- Emakumea eskaintzen da umek edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631980531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667060292.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631382330.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako edota etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657794652. Nerea.

4.2. Langile bila

- Laguntzaileak, higienistak eta dentistak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Tel. 943700082.
- Langilea behar da Eibarko hortz-klinika batean hortz-higienista bezala jarduteko. Berehala hasteko. Bidali kurrikuluma: hortzklínika.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko laguntza-klaseak ematen ditut. 1-3 laguneko taldeak. Tel. 678937827.
- Neska euskalduna eskaintzen da klase partikular pertsonalizatuak emateko (Matematika, Fisika, Marrazketa...). Urteetako esperientzia. Tel. 688678199.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai


- Bizikleta estatikoa salgai. Berria, ia erabili gabe. BH Fitness Astra H 286. Pantaila digitala, entrenamendu kardiobaskularra, pultsazioen kontrola. 85 kilorainoko erabiltzailearentzat. 150 euro. Tel. 697288990.

6.3. Galdu / Aurkitu

- Belarritakoak topatu nituen hilaren Sean Aldatzeko haur eskolaren parean. Tel. 672428273.

6.4. Bestelakoak

- DBH3ko liburuak erosiko nituzke. Tel. 637587811. Amaia.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

PANTAILAK ARDURAZ ERABILTZEKO

SCREEN POLLUTION

BY MULTIÓPTICAS

Gaur egun, inoiz baino gehiago, pantailak gure leiho, harreman eta bizimodu bihurtu dira.

Screen Pollution proiektua **MULTIOPTICAS**-ek sortu du, begien osasunaren arloko ikerketarekin eta prebentzioarekin duen konpromisoarekin bat eginez. Etorkizunari begira jarrita, **pantailak gehiegi erabiltzearen inguruan sensibilizatzea eta kontzientziazio handiagoa sortzea du helburu, baita halen kontsumo arduratsua sustatzea ere, pertsonak epe labur eta luzean beren begiak zaindu ditzaten.**



**18 URTE BETETZERAKO,
ZURE SEMEAK 26.280 ORDU
BAINO GEHIAGO IGARO
DITU PANTAILEI BEGIRA**



**GURASOEN %87 KEZKATUTA DAUDE SEME-ALABEK
PANTAILETAN EMATEN DUTEN DENBORAREKIN;
HALA ERE, 10etik 3k GAILU DIGITAL BAT
EROSTEN DIETE 4 URTE BETE AURRETIK**

**PANTAILEKIKO ETENGABEKO ESPOSIZIOAK MIOPIA, INSOMNIOA,
BEGI-LEHORTASUNA ETA KONTZENTRAZIO FALTA ERAGIN DITZAKE**

OHITURA OSASUNGARRIAK

MULTIOPTICAS-etik ohitura osasungarriak gomendatzen ditugu:

- Argi egokia erabiltzea eta pantailen distira eta kontrastea doitzea.
- Gorputz-jarrera ona eta gailuarekiko distantzia egokia izatea.
- 30 minutuz behin atseden hartzea, pantaila bati begira ari garenean.
- Begiak sarriago kliskatzea.

Gainera, gure "ingurune digitalak" igorritako argi urdin kaltegarria ehuneko handi batean blokeatzeko eta ikusmen-estresa murrizteko baliabide eraginkorrak jartzen dizkizugu eskura.

- Azken belaunaldiko argi urdinezko iragazkia eta UV babesa betaurreko graduatuetarako.
- Ikusmen-nekea gutxitzen duten ukipen-lenteak, korneara oxigeno gehiago igarotzea ahalbidetzen duen materialarekin eginak.
- Begia hobeto hidratatzeko likido gama zabala, begi-lehortasuna, hare-sentsazioa eta abar tratatzeko.

**MULTIOPTICAS TALDEKO OPTIKETAN ZURE OHITURAK ETA BEHARRAK
EBALUATUKO DITUGU, IRTENBIDERIK ERAGINKORRENA GOMENDATUZ.**

2mó
graduatu **BLUESTOP**
FILTROA
BARNE

99€



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS

www.multiópticas.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.


Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com